

COVID-19ak sortutako krisiak ez du erakundearen **ordainketen sisteman** eraginik izango

## Kutxabankek 15 egunetik behera murriztu ditu hornitzaileen ordainketak

- **Finantza Taldeak onartutako neurrietako bat da krisiak jotako enpresa, familia eta profesionaleri likidotasuna bermatzeko**
- **Taldea Euskadiko enpresen lehen kontratatzailea da, urtero 300 milioi euro baino gehiagoko eskariak egiten dizkie kanpo-zerbitzuak ematen dizkieten enpresa eta profesionaleri**

**2020ko apirilaren 1ean.** Kutxabankek **15 egunetik beherako** muga mantenduko ditu hornitzaileei egiten dizkien ordainketen epeak, Koronabirusaren krisiak bere inguruko ehun ekonomikoan sortu dituen kalteak samurtzeko. Egungo egoerak ez du, beraz, finantza Erakundearen ordainketa-sistema aldatuko, eta hilabeteko lehen hamabostaldiaren barruan kitatuko ditu kanpo-zerbitzuak ematen dizkieten enpresa eta profesionalen ordainketak.

Finantza Taldeak **6.500dik gora hornitzaile** ditu, eta Euskadiko enpresen **lehen kontratatzailea** da kopuruari dagokionez, eta lehenetakoa fakturatutako bolumena aintzat izanik. Lankide gehienak -%90- zerbitzuen esparrukoak dira, zehatz esanda informatikan eta informazioaren teknologietan aritzen direnak. Hauekin guztiekin iaz **313 milioi** euroko gastua egin zuen.

Kutxabankek egungo testuinguru zail honetan, lankide dituen enpresa, profesional eta familiei **likidotasuna bermatzeko** onartu duen neurrietako bat da hau.

Izan ere, Kutxabankek bat egin du berriki administrazio zentralak eta Jaurlaritzak abian jarri dituen neurriekin, eta beraz Erakundeak ETE eta autonomoei **mailegu berriak emateko** baliabideak jarriko ditu. Ildo honek, osotara, **500 milioi** euroko zuzkidura izango du. Gainera, ICO Espainiako Kreditu Ofizialeko Institutuak abian jarri duen abalen ildoko lehen zatirekin ere kolaboratzeko asmoa du Kutxabankek. Guztira **20.000 milioi** euro jarriko dira lehen urrats honetan.

Bere **Jarduera Egokien Kodearen** haritik, bere bezero guztiei egun batzuk aurreratu dizkie Segurtasun Sozialeko **pentsioen ordainketak**. Bere hipoteka-zordunak babesteko, baliabideak ipini ditu **ohiko etxebizitzaren maileguen kuotetan atzerapenak** eska ditzaten, eta bere babespeko etxeen **alokairuen errentetako hiru hilabete barkatu** dizkie enplegu erregulazio espedienteetan dauden familiei, edota lanik gabe gelditu diren autonomoei.

Gainera, Taldeko aurreikuspen planen jabeek, COVID-19aren krisialdiak larrien jotakoak direnean, beren **aurreikuspen-aurrezkien zati bat eskuratzea** eska dezakete, egoera honek sortu dizkien likidotasun arazoei aurre egin ahal izateko.

---